



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

Elkar Hezi Ikastetxea

Ikastetxearen kodea:

12991

Data:

2023/05/30





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

ELKAR HEZI Oñatin kokatutako itunpeko ikastetxea da eta Kristau Eskolako Sarearen kide da. Deba Goienean, gurasoen altxotik Unibertsitaterainoko goi-mailako hezkuntza-eskaintza egiten dugu (0-18 urte).

Eginbidea

ELKAR HEZI Hezkuntza Komunitate bat gara: ikasle, irakasle/langile, guraso, ikasle ohiak eta titularrak proiektu berean elkarlanean dihardugu. Horren isla juridiko eta bultzatzailea EREITEN Fundazioa dugu, ikastetxeko entitate titularra. Gure Hezkuntza Proiektu Ereduak ikasleei heziketa integrala (esparru akademikoan zein pertsonalean) eskaintzea du helburu, gizartearen aurrera egiteko heziz, norbere baitatik eta testuinguru hurbiletik abiatuz (Oñati, Debagoiena eta Euskal Herria) eragile aktibo eta onuragarri izan daitezen/ gaitzean.

Oinarritzat gaurkotasunez ulerturiko kristau eta giza baloreak ditugu, izaera berritzailea dugu eta guztiz konprometiturik gaude Euskara eta Euskal Kulturarekin.

Ikusmira

Izaera propioa duen hezkuntza proiektu berritzaile eta eraldatzailea

- Ikaslea, pertsona osoa oinarri duen eta goi-mailako prestakuntza koherentziaz ikur izanik.
- Berritzailea izatea bere osotasunean ulertuz:
 - Ildo pedagogikoan, ebidentzia zientifikoetan oinarrituta.
 - Kristau ikuskera eta baloreen berrinterpretazio gaurkotuan eta igorpenean, egungo zientziekin, kulturarekin eta gizartearekin elkarrizketa eta elkarlan giro ireki eta jarrerarekin.
 - Proiektu partekatu, inklusibo, ezaguna eta zabala, eragile aktibo eta ereduagarri izanik.
 - Hau guztia ELKAR HEZI HEZKUNTZA KOMUNITATE BAT IZANIK.

Gure ezaugarri hauexek direla-eta, lehentasunezko erreferentzi argia izan nahi dugu Oñatin, Debagoienan eta Euskal Herrian.

Baloreak

Baloreak Elkar Heziren izaera dira, bere isla. Erakundearen “barne kultura”ren parte dira eta Ikusmira erdiesteko funtsezkoak. Elkar Hezi Proiektu Ereduarekin bat.

- Erantzukidetasuna
- Bisio estrategikoa
- Berritzailea izan
- Partekatzea
- Elkartasuna
- Leialtasuna
- Konfidantza
- Komunitate izan
- Ausardia: dabilena baino ez da erratzen.

Gure Proiektu bereizgarrienak

1. IKAS KOMUNITATEA: Ebidentzia zientifikoetan oinarrituta ekiten dugu. Ikasle guztiek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzen dituzte, elkarbizitza oneko ingurunean.
2. ESTIMULAZIO GOIZTIARRA: Garunaren eraikitze momentu erabakigarriena 0 eta 6 urte bitartea da. Gure ikasleei AUKERAK eskaintzen dizkiegu antolakuntza neurologiko egokia lor dezaten.
3. MINDFULNESS: Barrura begira jartzea, areago, barrua ere badugula (bir)deskubritzea, zaintzea eta lantzea
4. 0 BIOLENTZIA 0 URTETIK: Ikastetxeko helburu pedagogikoen baitan, 0 biolentzia 0 urtetatik helburu izanik, genero indarkeriaren prebentzioan eta kudeaketarako eredu dialogikoa jorratzen dugu.
5. MATEMATIKA PROGRAMA: EMAT ikasleek matematikak sakon ulertu dezaten eta edozein arazo konpontzeko erabili ahal izateko diseinatuta dago.
6. HIZKUNTZA HIRUELEDUNA: Gure ikasleak hiru hizkuntzatan, ahoz zein idatziz, komunikatzeko gai izateko trebatzen ditugu.
7. BATXILERGO DUALA: Hainbat gaitasun lantzeaz batera batxilergoko titulu bikoitza lortzeko aukera.

ElkarHezinet Proiektua:

Ikasleek garatu behar duten gaitasunetako bat gaitasun digitala izanik, garapen honetan gure ikasleek ahal den eta baliabide egokienak izan ditzaten, Informazio, Komunikazio, Ezagutza Teknologien ezarpenean gure ikasleak 3. mailatik aurrera ordenagailu pertsonalarekin lanean hasten dira, ikastetxean dauden ordenagailuak erabiliz.

DBH eta Batxillergoaren kasuan ELKARHEZINET proiektua jarri genuen abian 2014-15 ikasturtean, honen ondorioz Bigarren Hezkuntzako ikasle bakoitzak bere ordenagailu pertsonala dauka. Horrela, metodologia berritzaileak erabiltzen dituzte, elkarlan dinamiko eta aktiboa, parte hartzailea eta sarekoa, testu liburuen erabilera asko murrizten delarik aldi berean.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

- Wifi sarea ikastetxea osoan
- Firewall Hardware abian
- Banakako kudeaketa gabeko Switch-ak
- Antivirus-ak gune nagusietan.

EKIPAMENDU TEKNOLOGIKOA

- 1x1 Proiektua 3.mailatik aurrera (Windows gailuak)
- Irakasle guztiek bere dispositiboa dute.
- Ikasgeletan arbel digitala edo proiektorea dago.
- Programazio eta robotikarako hainbat gailu.

ZERBITZU DIGITALA

Administrazio eta kudeaketa plataformak

- Alexia
- Intranet (Ikastetxean egindako Sitea)
- Intune (dispositiboen kudeaketarako)

Edukien plataformak eta Irakaskuntzarako zerbitzu digitalak

- Microsoft 365
- Google Workspace
- Lizentzia digitalak

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Elkar Hezin jakin badakigu ziklo berri bat hasteko atarian gaudela, inflexio-puntua izan daitekeena ikastetxeen eraldaketa digitaleko proiektuetan.

Gure ustez, erronka handia da gure Hezkuntza Erakundea Digitalki Gaitua bihurtzea, Europako erreferentziatzeko esparruen arabera (DIGCOMP ORG eta DIGCOMP EDU) eta horri dagokionez diseinatzeko ari diren politika instituzional berrien arabera (Hezkuntza Digitalaren Europako Plana; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Eraldaketa Digitalerako Plana).

Testuinguru horretan, uste dugu gure ikastetxea abiapuntuko egoera egokian dagoela, azken hamarkadan arlo horretan egin dugun lan handiaren ondorioz. Aldiz, konturatzen gara 2014-2015 ikasturtean abian jarri genuen ElkarHezinet proiektua eguneratzeko beharrean gaudela.

Argi dugu eboluzionatzeko jarraitu behar dugula, kalitatezko ikaskuntza digitala, inklusiboa eta integratzailea lortzeko helburuarekin, eta bizi dugun egoera aldakorrari erantzuteko eta egokitze gaitasunarekin.

Era berean, aurrera egiten jarraitu nahi dugu, ikastetxearen ikuspegi global batetik. Bertan, gaitasun digitaleko eta beharrezko gaitasun digitalak dituzten ikasleak prestatzeko prestaturiko langileak izango ditugu, edozein eten digital saihestuz eta aukera-berdintasuna bermatuz.

Guzti hori bizikidetzaren positiboa eta Ikten erabilera segurua bultzatzen duen testuinguru batean garatu nahi dugu eta jarraian aurkeztu dugun Proiektu Digitala ekintza ildo hau garatzeko aukera aparta dela uste dugu.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Horrela, prozesu honetan zehar, honako jarduera hauek egin ditugu:

- 1 . Ikastetxearen ibilbide digitala ebaluatzea, lortutako lorpenak eta oraindik lortzeke dauden helburuak identifikatuz.
- 2 . Ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleek eta ikasleek beren burua hausnartzeko prozesu bat garatzea, SELFIE tresnaren bidez.
- 3 . Bi analisietatik ondorio egokiak ateratzea, DIGCOMP ORG ebaluazio-tresna gisa hartuta. Horretarako, ikastetxea eraldaketa digitalaren terminoetan kokatzen saiatu gara, bertan jasotzen diren 7 arloetan
4. AMIA batean marraztutako errealtatea sintetizatzea.
5. DIGCOMP ORGn jasotako 7 arloetako bakoitzean lortu beharreko helburu estrategikoak definitzea.
6. Egin beharreko ekintzen plana egitea, dagokion denbor alizaziora pasatzeko.
7. Ebaluazio-adierazleak eta kasuan kasuko jarraipen-tresnak ezartzea.

Proiektu Digitala egiteko, lantalde bat osatu dugu; 5 pertsonak osatzen dute, eta bertan zuzendaritza-taldea, eta ikastetxean eskaintzen diren hezkuntza-etapa guztiak ordezkatzen dira.

Proiektu digitala diseinatzeko, aldieron bildu gara 2022-2023 ikasturteko lehen hilabeteetan.

Lan hori egiteko, Educontic hezkuntza-aholkularitzaren aholkularitza izan dugu, Kristau Eskolak sustatutako GOMPDIG EDU GELAN programaren esparruan.

Plana diseinatzeko prozesua irakasleekin, ikasleekin eta familiekin partekatutako Site batean jaso dugu.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Heldutasun teknologikoko eta hezkuntza-eraldaketako prozesua nola gauzatu behar genuen planteatzeko orduan, argi genuen ikastetxearen hezkuntza-proiektuari eta plan estrategikoari lotutako ekimena izan behar zela.

Ondorioz, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren barruan, Ikastetxeko Proiektu Digitala (IPD) hezkuntza-zeregina zehazten duten oinarriko dokumentuetako bat da, eta horren arabera, ikastetxeko eremu guztietan du eragina.

Hortik abiatuta, IPDak bere islada izango du baita ere dagokion urteko Planetan., orain arte ElkarHezinet eduki izan duen moduan.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikastetxeak DICOMP ORGk ezarritako helburuak zein neurritan lortu dituen zehaztu ahal izateko, 4 progresio-maila bereizten dituen ebaluazio-panel batean oinarritu gara.

- (1) Hasierakoa
- (2) Ertaina
- (3) Aurreratua
- (4) Bikaina

Esan behar dugu kasu batzuetan ez zaigula erraza egin abiapuntua zein den zehaztea, baina panel horren bidez identifikatu dugu zein izan behar duen hurrengo 2-3 urteetarako horizonteak, Ikastetxearen Plan Estrategikoaren eta haren Hezkuntza Proiektuaren arabera, noski.

Txosten beretik, diseinu horretarako, SELFIEren bidez lortutako datuei ere erreparatu diegu.

IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

1. ZUZENDARITZA ETA GOBERNANTZA
2. IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA
3. GARAPEN PROFESIONALA
4. EBALUAZIOA
5. EDUKIA ETA KURRIKULUMNAK
6. KOMUNIKAZIOA ETA NETWORKING
7. AZPIEGITURAK

AMIA analisisa

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Batez ere denbora-baliabide falta prozesua kudeatzeko. Ikt taldeak ez ditu une nahikoak Proiektuaren jarraipena egiteko eta arlo batzutan formakuntza falta.

IKTen erabilera ona eta osasuntsua zeharka bideratzea komunitate osoan (ikasleak, irakasleak eta familiak), bai pedagogikoki nola araudiaren aldetik.

Ikasleen gaitasun digitalen profila maila guztietan zehaztu gabe dago.

Irakasle multzo esanguratsu baten prestakuntza nahikorik ez zenbait arlotan.

Ebaluazio arloan ez dira behar beste erabiltzen IKTak eta haiek eskaintzen dituzten aukerak ebaluazio metodologia berriak aplikatzeko irakaleen artean.

Eraikinak bata bestearen ondoan ez egotea

Unitate partekatuetako egitura eta elkarlan politika definitu gabe egotea.

LHn eduki digitalaren erabilera eta ekoizpena eskasa da. IIB(EVA)ren erabilera oso urria da.

Eduki digitalen ekoizpenaren minimoak eta jarraibideak ez daude definiturik.

Partekatzeko kultura ez dago oso zabaldua.

Egunean ditugun baliabide teknologikoei ez zaie etekin osoa ateratzen. Hala nola, Alexia (Administrazioan), Intune, 1x1 dispositiboak LHn.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Familien (H)IK(E)Ten erabileraren inguruan dituzten kezkak, zalantzak eta beldurrak

Ikastetxe kanpotik ere ezarri egiten diren erabilera desegokiei nola aurre egin.

Baliabide teknologikoen bilakaera arina nola egin aurre; nola egokitu gure aukerak.

Neurrigabeko "hiperbirtualizaziokeria"k, aurrez-aurreko bizipenak alboratzea.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Eraldaketa digitalan orain arte egindako ibilbidea.

ElkarHeziNet 3. Mailatik Batxilergoko 2. Mailara arte.

Ikas Komunitateak gara eta metodologia aktiboen alde gaude eta praktikan jartzen ditugu.

DBHn eduki eta balibide digital ugari erabiltzen dira. ikasgaien %80an baliabide propioak erabiltzen dira.

Alexia plataforma.

Webgunea eta sare sozialak.

Batxilergo duala.

Azpiegituren eta baliabide teknologikoen oinarri sendoa.

Intune erabiltzen dugu.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

STEAM proiektuetan parte hartzea.

Irakasleen gaitasun digitalaren akreditazio prozesua.

Ikastetxearen Proiektu Digitala egin behar izanak, bai analiasian eta bai helburuak zein adierazleak finkatzeko orduan.

Hezkuntza Sailak aurrera eraman nahi duen Hezkuntza Lege berriaren baitan, (H)IK(E)T arloa kudeatzeko figura eta taldea jasotzea eta finantzatzea baita ikastetxe itunduetan.

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

- * ElkarHeziNet proiektuari bultzada berri bat eman irakasleen gaitasun digitalaren akreditazio prozesua errazteko.
- * Ikastetxean ditugun azpiegitura, baliabide eta eduki digitaleen aukerak ondo aprobetxatu STEAM proiektuen partaidetza bultzatzeko.
- * Abian dagoten Ikas Komunitatea eta metodologia aktiboan areagotu STEAM proiektuak edo best nolako proiektu berritzaileak aurrera eramateko.
- * Webgunea eta Sare Sozialeen estrategia digitala definititu ikastetxeko proiektu digitala Ikas Komunitatean ezagutarazteko.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

- * IKT taldearen jarraipen uneak definitu eta bideratu Proiektu Digitalaren helburuak aurrera eraman ahal izateko.
- * IKTen erabilera ona eta osasuntsua zeharka definitu eta txertatu, bai pedagogia aldetik, formakuntza aldetik eta arauen aldetik. Ikasleei, irakasleei eta familiei bideratua.
- * Irakasleen gaitasun digitalaren irteera profila maila guztietan definitu eta txertatua, bera garapena eta ebaluzio txertzeko.
- * Irakasleei zuzendutako gaitasun digitalari buruzko formakuntza garatu irakasleen akreditazio prozesua laguntzeko.
- * Unitate Partekatuen elkarlaneko egitera definitu eta txertatu, ekoizpen digitala bultzatuz eta elkarlana sustatuz.
- * Egunean ditugun baliabide teknologikoei etekin gehiago nola atera aztertu eta planifikatu. Hala nola, Alexia (Administrazioan), Intune, 1x1 dispositiboak LHN, STEAM proiektuak, Batxilergo Duala eta beste hainbat proiektu berritzaile aurrera eraman ahal izateko.
- * Classroom, ClassDojo eta beste hainbat IKTen erabilera txertatu gaitasun digitalaren ebaluzio bideratzeko eta proiektuetara lotuta dauden ebaluzio metodologia berritzaileak sustatzeko.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

- * ElkarHezinet proiektuari bultzada berri bat eman familiak dituzten kezkak eta zalantzak desagertarazteko.
- * Ditugun erabilera teknologikoak baliatuz (Intunes, Googleko Administrazio Konsola), IKTen erabilera desegokia zuzentzeko eta saihesteko neurriak aplikatu.
- * Eduki eta baliabide digitalen sormena, antolaketa eta partekatzea definitzen duen politika bat definitu eta aplikatu (bai irakasleentzat nola ikasleentzat) familien kezkei aurre egiteko.
- * Azpiegituren eta baliabide teknologikoetan lortutako oinarri sendoaren mantentzea eta eguneratzea bermatu, baliabide teknologikoen bilakaera arinari eraginkortasunez erantzuteko.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

- * IKT talearen bileren egutegia planikatu, IPD jarraipena bermatzeko.
- * IKTen erabilera ona eta osasuntsua zeharka bideratzea komunitate osoan (ikasleak, irakasleak eta familiak), bai pedagogikoki nola araudiaren aldetik.
- * Irakasleen gaitasun digitalen profila maila guztietan zehaztu eta programazioetan txertatu, bera garapena eta ebaluzio bermatuz.
- * Irakasleen formakuntza plana garatu, gaitasun digatalean dauden gabeziei erantzuteko.
- * Administrazio pertsonen zuzendutako formakuntza plana garatu Alexiari esparru honetan etikina atera ahal izateko.
- * Classroom, ClassDojo eta beste IKTak ebaluzio tresna gisa txertatu LHTik aurrera.
- * Unitate Partekatuen egitura eta antolamendua definitu, elkarlana bultzatzeko eta egiten diren baliabide digitalei etekin gehiago ateratzeko, bai irakasleen nola ikasleen aldetik.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
IKTen erabilera ona eta osasuntsua zeharka definitu eta txertatu, bai pedagogia aldetik, formazio aldetik nola arauen aldetik;ikasleei, irakasleei eta familiei zuzendutako ekintzak jaso, ikastetxean bizikidetza digitala positiboa lortuz.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da	Ekainak 2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.1 A3 Ikastetxeak protokolo bat du, hezkuntza-komunitateari komunikaziorako bideak eta uneak e	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IKT taldearen jarraipen uneak definitu eta bideratu (bileren egutegia planifikatu) .. dar-a	IKT taldekideen denbora eta Calendar-a	IKT taldea eta Zuzendaritza	2023/10/01	Egina
LG.E2. Ikt erabilera egokiaren inguruan dauden arauak birpasatu, araudian sartu eta ikas komunitatean ezagutarazi	Lanak egiteko unea/ denboren definizioa eta ezagutarazteko denborak eta moduak adosteaLanak egiteko unea/denboren definizioa eta ezagutarazteko denborak eta moduak adostea	IKT taldea eta Zuzendaritza	2024-3	Egina
LG.E3. Ikas komunitateak esparru honetan dituen formazio beharrak identifikatu eta erantzuna eman	Galdetegia; Erantzunen analisia egiteko hitzordua; Formazio Plana	Zuzendaritza taldea	2023/12/01	Egina
LG.E4. Tutoretza Planaren bitartez, IKTen erabilera egokia, osasuntsua eta baikorra ikasgelan txertatzea	Tutoretza Plana, IKTak egoki erabiltzeko gida.	IKT taldea; Orientatzailea/ Aholkularia; Tutoretza prozesua	2024-6	Egina

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Ikasleen gaitasun digitala programazioetan txertatu, bere irteera profila maila guztietan definituz, bere garapena eta ebaluazioa bermatzeko.

Deskriptorea

II 1.3 Pertsonalaren eta ikasleen gaitasun digitalaren (GD) konparatiboa egiten da.

Epea

Ekainak 2024

Adierazlea

II 1.3 A2 Unitate didaktiko eta programaziotan ikasleen gaitasun digitalaren irizpideak txertatu dira.

Mota

Ehunekotan

Helmuga

80%

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
II. E1. Ikasleen gaitasun digitalaren irteera profila mailaka definitu, hezkuntza legearekin bat etorritz	LOMLOE eta EAEko curriculumak. Europako Markotik Irteera Profilen definizioa eta mailaketa.	IKT Taldea eta Zuzendaritza Taldea	2024-6	Egina
II.E2. Gaitasun digitala garatzeko jarduerak, ebaluazio irizpideak eta ebaluazio ereduak definitu	LOMLOE eta EAEko curriculumak. Europako Markotik Irteera Profilen definizioa eta mailaketa.	PII eta Ebaluazio prozesuak eta IKT taldea	2024-6	Prozesuan (%60-79)
II.E3. Irakasleen artean ezagutarazi eta programazioetan txertatu	Ke-ren prestakuntza-planaren eta ad hoc ikastaroen bidez prestakuntza jaso	PII eta Ebaluazio prozesuak eta Zuzendaritza taldea	2024/10/01	Prozesuan (%60-79)

GP Garapen profesionala

Helburua

GP. Ikastetxeko langileei zuzenduta dagoen prestakuntza plana definitu eta garatu, dauden beharrak eta gabeziak identifikatuz eta erantzuna emanez, beraien gaitasun digitalaren garapena bermatzeko.

Deskriptorea	Epea
GP 1.3 EGPa lerrokatu dago banakako eta antolatutako premiekin	Ekainak 2024

Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A1 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasleentzat, hainbat interes ped:	Bai/Ez	BAI
GP 1.3 A2 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasle-taldearentzat, ezagutza ho	Bai/Ez	BAI
GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaski	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
GP.E1. A2 egin ondoren Ikastetxeko langileen beharrak identifikatu galdetegi bidez	Google Forms eta diseinatzeko denbora	Zuzendaritza Taldea	2023-7-5	Egina
GP.E2. Formazio plana diseinatu, planifikatu eta garatu	Galdetegiaren emaitzak aztertze denbora; Gantt diagrama edo kronograma modukoa	Lanprest prozesua eta Zuzendaritza taldea	2023-24 eta 2024-25	Egina
GP.E3. Unean-unean Eusko Jaurlaritzak irakasleei exijitzen dien gaitasun digitaleko akreditazio ofizialak lortu	Akreditazioa lortzeko ikastaroa eta aholkularitza	Zuzendaritza Taldea eta Lanprest prozesua	2023-5	Prozesuan (%80-99)

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua
EJ. Classroom, ClassDojo eta beste hainbat IKTen erabilera LHtik aurrera txertatu ikasleen gaitasun digitala ebaluatzeko eta ebaluazio metodologia berritzaileak sustatzeko

Deskriptorea	Epea
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	Ekainak 2025

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A1 Ikasgaien % ... tan errubrikak erabiltzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuetan, ikasleek ber	Ehunekotan	70
EJ 1.1 A2 Ikasgaien % .. tan, ikasleek produktu digitalen ebidentzien portafolioa erabiltzen dute irakatsi	Ehunekotan	50
EJ 1.1. A3 Ikasgaien % ... tan ikasleek lineako probako teknologiak erabiltzen dituzte, berehalako itzuler	Ehunekotan	50

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
EJ.E1. Ebaluazio IKT tresna ezberdinak identifikatu	Irakasleen Akreditazio Digitaletik aukeraturikoak batu eta komunean jartzea (CoRubrics eta parekoak) eta diseinatzeko denbora	IKT Batzordea eta Ebaluazio prozesua	2023/12/01	Egina
"EJ.E2. Classroom eta ClassDojok eskaintzen dituzten ebaluazio aukerak ezagutu eta bere erabilera zehaztu (adibidez, atazak nola konfiguratu eta bidali, Classroom-en izenak, ebaluazioa nola egin, eta abar)"	Barne formakuntza diseinatzeko denbora eta gauzatzeko ekimena	IKT Batzordea eta PII prozesua	2024/03/01	Prozesuan (%40-59)
"EJ.E3. Tresna digitalak ebaluazio metodologia berrietan nola erabili aztertzea"	Barne formakuntza diseinatzeko denbora eta gauzatzeko ekimena	IKT Batzordea eta Ebaluazio prozesua	2024/06/01	Egina

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

EC. Baliabide digitalei etekin gehiago ateratzeko hainbat jarraibide eta antolamendu arauak adostu, bai irakasleen nola ikasleen aldetik, ikaskuntza eta irakaskuntza digitala eraginkorki garatzeko

Deskriptorea

EC 1.1 Irakasleek eta ikasleek sortzen dute edukia

Epea

Ekainak 2025

Adierazlea

Mota

Helmuga

EC 1.1 A1 Curriculum-arloen/ikasgaien % ... ean, gutxienez, ikasleek eduki eta baliabide digitalak sortze

Ehunekotan

60

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
EC.E1. Irakasleek Google-n erabiltzen dituzten unitate partekatuen elkarlaneko egitura eta erabilera (baimenak) definitu eta txertatu	Prozesuen elkarlanerako denbora	IKT Batzordea eta PII prozesua	2024/03/01	Prozesuan (%80-99)
"EC.E2. Irakasleek sortzen dituzten eduki digitalak ikasleekin nola antolatzea eta partekatzea definitu (adibidez, Sitearen edo Classroom-en bitartez, zein tokitan..)"	Prozesuen elkarlanerako denbora	IKT Batzordea eta PII prozesua	2024/03/01	Prozesuan (%80-99)
EC.E3. Ikasleen portfolio digitalerako eredu bat diseinatu, adostu eta aplikatu, ikasleek bere edukiak antolatzeko eta beraien ebidentziak jasotzeko	Prozesuen elkarlanerako denbora	PII eta Ebaluazio Prozesuak	2023/12/01	Egina
EC.E4. Egile eskubideak, erabilerak eta lizentzien politika bat zehaztu eta irakasleen eta ikasleen artean aplikatu	"Momentuko araudia, eta elkarlanerako denbora "	IKT Batzordeak eta Datu Babesaren arduraduna (idazkaritza) eta Zuzendaritza	2024/06/01	Egina

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua		
Ikastetxe barruan dagoen ezagutza eta praktika onak era sistematizatuan partekatzea, esperientziak identifikatuz, elkarlana eta sare lana sustatzeko helburuarekin.		
Deskriptorea	Epea	
EN 1.5 Barne-lankidetzak eta ezagutzak trukatzeko espero da	Ekainak 2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.5 A1 En el centro se han creado recursos y momentos para intercambiar información y reflexiona	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen praktika onak identifikatzea	Galdetegiak, eta EDUKIAK ETA CURRICULUMA atala lortua izatea	IKT Batzordea, Zuzendaritza eta PII prozesua	2024/12/01	Prozesuan (%80-99)
Praktika edo jarduerak zabaltzeko plangintza bat egin eta garatu (formazio planean sartu daiteke)	Plana diseinatzeko eta komunikatzeko denbora . Formazio plana (bertan txertatzeko).	Zuzendaritza, PII prozesua	2025/03/01	Prozesuan (%60-79)

AZ Azpiegiturak

Helburua		
"AZ. Azpiegituren eta baliabide teknologikoetan lortutako oinarri sendoaren mantentzea eta eguneratzea bermatu, baliabide teknologikoen bilakaera arinari eraginkortasunez erantzuteko."		
Deskriptorea	Epea	
AZ 2.1 Erabilera arduraturako arauak daude ezarrita	Ekainak 2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.1 A2 Ikastetxeak prestakuntza-saioak (tutoretza-saioak) eta ikasleentzako materialak zehaztu ditu	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
"AZ.E1. IKTen erabilera desegokia zuzentzeko eta saihesteko baliabide teknologikoetan (Intune, Google Konsola) neurriak zehaztu eta aplikatu"	Xenon-en aholkularitza, momentuko araudia eta barne informazioa (irakasle eta gurasoek eginiko identifikaziotik jasoriko eskaerak),	IKT Batzordea, Zuzendaritza, Kanpo aholkularitzako arduraduna (Xenon)	2024/02/01	Prozesuan (%80-99)
"AZ.E2. Egunean ditugun baliabide teknologikoei etekin gehiago nola atera aztertu eta planifikatu. Hala nola, Alexia (Administrazioan eta LHn), Intunes, 1x1 dispositiboak LHn"	ALEXIA-koen formakuntza eta Ebaluazio eta idazkaritzaren aldetik hausnarketa (galdetegiak, jasoriko eskaerak...)	IKT Batzordea, Zuzendaritza, Kanpo aholkularitzako arduraduna (Xenon)	2023/12/01	Prozesuan (%80-99)
"AZ.E3. Mantentze zerbitzuak mantendu"	Kanpo enpresaren aholkularitza (Xenon).	IKT Batzordea, Zuzendaritza, Kanpo aholkularitzako arduraduna (Xenon)	Uneoro	Egina
"AZ.E4. Azpiegitura eta baliabide teknologiko berrien inbertsio plana diseinatu"	Beharrak identifikatzeko galdetegiak, egoera ekonomikoaren azterketa, lehentasunak markatzeko plana diseinatzea	IKT Batzordea, Zuzendaritza, Kanpo aholkularitzako arduraduna (Xenon)	2025/03/01	Egina

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	2025eko Ekaina	Adierazleen arabera	Zuzendaritza Taldea		
II	2024ko Ekaina	Adierazleen arabera	IKT batzordea		
GP	2025eko Ekaina	Adierazleen arabera	Zuzendaritza taldea eta IKT batzordea		
EJ	2025eko Ekaina	Adierazleen arabera	IKT Batzordea		

EC	EC. Baliabide digitalei etekin gehiago ateratzeko hainbat jarraibide eta antolamendu arauak adostu, bai irakasleen nola ikasleen aldetik, ikaskuntza eta irakaskuntza digitala eraginkorki garatzeko	2025eko Ekaina	Adierazleen arabera	IKT Batzordea		
EN	Ikastetxe barruan dagoen ezagutza eta praktika onak era sistematizatuan partekatzea, esperientziak identifikatuz, elkarlana eta sare lana sustatzeko helburuarekin.	2025eko Ekaina	Adierazleen arabera	IKT Batzordea		
AZ	"AZ. Azpiegituren eta baliabide teknologikoetan lortutako oinarri sendoaren mantentzea eta eguneratzea bermatu, baliabide teknologikoen bilakaera arinari eraginkortasunez erantzuteko."	2025eko Ekaina	Adierazleen arabera	Zuzendaritza taldea eta IKT batzordea eta mantentze lan eta aholkularitza kanpo enpresa (Xenon)		
IB						